


Josu Ortuondo
'A Mediodia'-n

ETB2 • 12:10etan

Juan Luis Bikuñak aurkezten duen A Mediodia saioan, Josu Ortuondo Bilboko alkateak Abando Ibarriari buruz eta laster utziko duen karguaz hitz egingo du.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ LA NOVIA VESTIA DE NEGRO.

Truffauten film hau, ederra da, kurioa eta arretaz ikus-tekoa, nahiz eta zenbait adituk Frantziako maisu horren lan guztien artean eskasenetakotzat jotzen duen. William Irishen eleberriaren egokitzapena, beharbada Truffautek ez zuen biribiltzen jakin, baina ez dago dudarik suspentsezko zinta poliziako ikusgarria denik. Jeanne Moreau aktorearen luxuzko presentzia kontuan hartzekoa da.

■ LA FLOR DE MI SECRETO.

Almodovarren azkenurreko film luzea, azken urteetan egin dituen lan guztien artean onena da, nahiz eta ez den oso film handia. Marisa Paredesek rol nagusia egiten duen antzezpena miresgarria da; emakumea oso txukun dabil. Are gehiago, melodrama arrosa honen azken emaitza aztertuz gero, aktore horren partaidetza da, dudarik gabe, elementu garrantzitsua. Aurpegi ezagunaz inguratuta azaltzen da, zuzendari beraren lan guztietan ohikoak bilakatu diren aktoreez inguratuta hain zuzen. Bestetik, aziertuzko irudirik ez zaio falta, sekuentziaren bat nahikoa landuta dago eta, Almodovarrek argi uzten du pertsonaiak eratzeko duen gaitasun berezia, berriro ere.

■ MADE IN AMERICA.

Richard Benjaminek Whoopi Goldberg eta Ted Danson aktoreak bikote zirenean deitu zituen, komedia komertzial tuntun samar hau protagoniza zezaten. Benjamin aktore eta zuzendariaren lan guztien artean eskasetakoa da eta ez du film bezala balio handirik, bikote protagonistaren luzimendua baizik ez baitu biltzen. Dena den, entretenimendu gisa erraz ikusten da. Arrazakeria gai nagusiztat duen abentura arrunt bat kontatzen du.

Mendebalde Urrunerako bidaia
fin eta gozagarria

■ LOS PROFESIONALES. Richard Brooksek zuzendu eta ekoiztutako western eder hau gomendatuz hasiko dut gaurko komentarioa. Benetan interesgarria da; errealizataileak eta hark inguruan izan dituen teknikariek nahiz aktoreek ere behar bezain txukun erabili dituzte generoaren elementu guztiak, eta lan laudagarria lortu dute guztien artean. Mexikoko muga inguruan garatzen da. Mexikar iraultzaile talde batek emakume estatu batuar bat bahituko du, eta haren senarrak lau lagun kontratatuko ditu emaztea berreskuratzeko. Beste elementu nabarmenen artean, kontuan hartzekoak dira erritmo polita, elkarriketa landuak eta Maurice Jarrerren soinu banda ederra.

ETB 1

- 06:55: Bertatik Bertara.
07:35: Axut.
08:05: Goenkale.
08:45: Euskal Herritik.
09:15: Superbat. 'Superheroiak', 'Mamu harrapariak', 'Reboot', 'Potto-kiak', 'Martitzeko motosaguak', 'Sable zalduna eta izarretako sheriffak', 'Rights from the heart III'. Zinea: 'Asterix Britanien'.
13:00: Iparraldearen orena.
13:05: Tom eta Jerry.
13:30: Gaur egun. Albistegia.
14:20: Goenkale.
15:00: XXI. Mendeko arka. Dokumentala.
16:00: Hamaika korapilo.
17:30: Iparraldearen orena.
17:35: Superbat. Ikusgela, 'Candy Candy', 'Rights from the heart III', 'Ninja dortokak', Supernet, Euskaraokea.
19:45: Superrak.
20:00: Gaur egun.
20:55: ETB kirolak.
21:05: Bertatik Bertara. Magazina.
21:45: Goenkale. Telesaila.
22:30: Hitzetik Hortzera.
23:50: National Geographic: Talka hilgarriak. Dokumentala.
00:40: Bakarrik. Esteban Aldamiz-Etxebarriak aurkezten duen saioa.
02:10: Nire bi aitak. Telesaila.
02:30: Axut.
03:00: Hamaika korapilo.
04:30: Ikusgela.
05:30: Gizon traketsak.
05:55: Haran eta gailur.
06:50: Bizi-giroak.

ETB 2

- 07:05: Asteberri.
08:05: Del país de los vascos. 'El robie de Iturmendi'.
08:40: Adderly.
09:30: Roseanne. Telesaila.
09:55: Forum.
10:20: Zinema.
La novia vestida de negro.
Zuzendaria: Francois Truffaut. Aktoreak: Jeanne Moreau, Claude Rich. 1968.
12:10: A mediodia.
12:30: La cocina de Pedro Subijana.
12:45: El comisionado. Telesaila.
13:35: La botica de la abuela.
14:00: Información territorial.
14:28: Teleberri.
15:50: Zinema.
Los profesionales.
Zuzendaria: Richard Brooks. Aktoreak: Lee Marvin, Burt Lancaster. 1966.
17:50: Zinema.
Los dioses deben de estar locos en China.
Zuzendaria: Dickson K.N.Tso. Aktoreak: Nixau Kent, Chaeng Cynthia.
19:25: Pacific blue.
20:10: Todo o nada.
20:58: Teleberri.
22:00: La noche de...
Pradera de fuego.
Zuzendaria: Andrew Chapman. Aktoreak: Natasha Henstridge, Keith Carradine. 1997.
Nieve que quema.
Zuzendaria: Karel Reisz. Aktoreak: Nick Nolte, Tuesday Weld. 1978.
02:10: Ruth Rendell.
03:00: Forum. Errepikapena.
03:30: Amaiera.

La novia vestida de negro	♦ ♦ ♦
1968, Francois Truffaut	10:20 ETB2
El Litri y su sombra	♦
1959, Rafael Gil	11:00 La2
Los profesionales	♦ ♦ ♦ ♦
1966, Richard Brooks	15:50 ETB2
Pánico en el vuelo 174	♦ ♦
1995, Jorge Montes	16:00 T5
Los dioses deben de estar...	♦ ♦
Dickson K.N.Tso	17:50 ETB2
Le gone du Chaaba	♦ ♦
1997, Christophe Ruggia	20:40 C+(f)
Dans la peau d'une blonde	♦ ♦ ♦
1991, Blake Edwards	20:50 TF1
Made in America	♦ ♦
1992, Richard Benjamin	20:55 F2
Jerusalem	♦ ♦
1996, Billie August	21:35 Arte
Los viajes de Gulliver	♦ ♦
1996, Charles Sturridge	21:55 A3
Pradera de fuego	♦ ♦
1997, Andrew Chapman	22:00 ETB2

La flor de mi secreto	♦ ♦ ♦
1995, Pedro Almodovar	22:30 La2
Asalto al Monasterio	♦ ♦
1995, Aleksandr Burauský	23:30 T5
Sous les pieds des femmes	♦ ♦
1996, Rachida Krim	23:10 C+(f)
Dias de fortuna	♦ ♦ ♦
1995, Andrew Davis	23:15 TVE1
Nieve que quema	♦ ♦ ♦
1978, Karel Reisz	00:00 ETB2
L'année du chat	♦ ♦
1988, Dominik Graf	00:20 C+(f)
Tacones lejanos	♦ ♦ ♦
1991, Pedro Almodovar	01:15 La2
El pacto de Berlin	♦ ♦ ♦
1985, John Frankenheimer	02:10 A3
El idolo	♦ ♦
1992, Arthur Hiller	02:15 TVE1
Viviendo el pasado	♦ ♦ ♦
1947, Martin Gabel	03:45 La2
♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦	
TXARRA	ESKASA
BALEKOA	ONA
BIKAINA	



ARTXIBOKOA

Whoopi Goldberg eta Ted Danson dira Made in America filmeko protagonistak.



irratia ♦

Euskadi Irratia. Esteban Antxustegi, Jose Luis Elorza, Patxi Baztarrika eta Estebe Petrizan izango dira Goizean behin saioko tertulian. 09:30etan Julian Gorosperi egingo diote eguneko galdera: Gaur zer esango duzu behin baino gehiagotan?. 10:25ean, Zeanuriko taxi merke baten xehetasunak ezagutzeko aukera izango dute entzuleek. Arantxa Urretabizkaia eta Jon Maia bizitzak ematen dituen zaplastekoez arituko dira. 11:30etan, berriz, A-8

autobideaz hitz egingo dute Esteban Muruamendiarezek eta Garikoitz Plazazolak.

20:00etan hasten den Sormenari lehiotz irratisaioan, Pili Kaltzadak bere Ur-tximeletak poesia liburuaz hitz egingo du. Ondoren, Nafarroako ikastoletan liburu gustukoak aukeratzeko antolatutako bozketaz ariko dira. Euskal literaturaren historiaren pasarte bat gogoratu eta azken egunetako literatur albisteen berri ere emango dute.

Herri Irratia. Eusko Ikaskuntzak antolatutako mahai-ingurua izango da gaur gaueko 22:00etan. Bertan, azkeneko urteetan EAEko biztanleriak izandako bilakara aztertu, eta datozten urteei begira egingo dute. Solasaldian Xabier Aierdi eta Maribel Larrañaga soziologoak eta EUSTATEko metodologia eta koordinazio arduradun Angeles Iztueta izango dira. Maria Agirre kazetariak gidatuko du mahai-ingurua.